

## 2020an erregistratutako langabezia

2020an zehar LANBIDEko bulegoetan 14.822 pertsona langabe gehiago erregistratu dira, hazkundea balore erlatiboetan % 6,6koa izan da. 240.912 langabe ezberdin egon dira urtean zehar.

### • S E X U A

Azken urtean langabezian dauden erregistratutako pertsona kopurua bai gizonezkoen artean bai emakumezkoen artean hazi egin da. Lehenengoan artean % 9,7 hazi da eta bigarrenengoan artean % 3,9 (112.727 gizonezko erregistratu dira urtean zehar eta 128.185 emakumezko). Gaur egun langabeen % 53,2 emakumeak dira. Krisia hasi zenean, aldiz, langabe kopurua berdintsua zen bi sexuetan, gizonezkoen artean langabezia orain baino handiagoa zen eta. Gizonezkoen artean krisiaren eragina handiago izan zen, baina talde hau errekonferazio ahalmen handiago erakusten ari da.

### • A D I N A

Azken urte honetan langabetu kopurua adin tarte guztietan hazi da, 55 urte gorakoan artean izan ezik (977 langabe gutxiago, % 2,2ko murrizketa). 24 urte azpikoan artean hazi da gehien (% 30,0) eta gutxien 45-54 adin tartean (% 2,8). Langabeen % 40,5ak 44 urte baino gehiago ditu, % 35ak 35 urte baino gutxiago ditu eta gainontzeko % 24,5ak 35 eta 44 urteen artean kokatzen dira. Langabeak zenbat eta zaharragoak izan orduan eta zailtasun handiagoak dituzte laneratzeko. Ekonomia, egun, hobetzen ari bada ere, egiturazko langabezia handia utziko du krisiak langabe zaharrenean artean.

### • J A R D U E R A E K O N O M I K O A

2020an zehar langabetu kopurua jarduera sektore guztietan hazi da. Gehien industria sektorean hazi da (% 9,1) eta gutxien eraikuntza sektorean (% 0,1). Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 7,7 hazi da.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia igoera handiena izan duen jarduera ostalaritza izan da 2.54 langabetu gehiagorekin. Igoera nabarmenak izan dituzten beste jarduerak ondorengoak izan dira: manufaktura-industria (2.424) eta administrazio jarduerak (1.847). 2020an langabezia Administrazio Publikoan (-293) eta higiezinaren jardueretan (-33) murriztu da gehien.

### • L A N G A B E Z I A R E N I R A U P E N A

Urte honetan, epe laburreko langabetu kopurua 19.7521 pertsonatan hazi da eta epe luzekoa 4.930 pertsonatan murriztu. Balore erlatiboetan, epe luzeko langabetuen kopuruaren jaitziera % 6,3koa izan da eta epe laburreko langabeen igoera % 6,3koa. Ekonomiaren susperraldia, bada, aukerak eskaintzen ari da langabe kronifikatuenei.

### • L A N G A B E T U E N K O K A P E N G E O G R A F I K O A

Azken urtean langabetu kopurua Bizkaian % 4,60 hazi da (5.769 pertsona), Gipuzkoan % 7,0 (4.396 pertsona) eta Araban % 12,5 (4.655 pertsona).

Hiriburuak aztertuta, Donostian hazi da gehien langabetu kopurua balore erlatiboetan, % 8,1 (1.250 pertsona). Gasteizen % 6,5 hazi da langabezia (1.898 pertsona) eta Bilbon % 3,9 (1.632 pertsona). Beste eskualde hauetan nabarmen egin du gora langabetu kopuruak 2020an: Ezker Eskualdean (970), Durangaldea (900) eta Tolosaldea (660).

## 2020an erregistratutako langabezia

### • LANGABEZIA - PRESTAZIOA

2020an 84.001 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko urtean baino 6.165 langabe gehiagok. Langabeen % 34,9k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubi-dea. 61.041 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren arabeko prestazioa, hau da, langabeen % 25,3 dira horiek. 22.960 langabek (% 9,5), berriz, langabeziagatiko prestazioa jasotzen dute.

Aurreko urtearekin alderatuz, langabeziagatiko estaldura-tasak 0.5 puntu hazi da.

### • IKASKETA MAILA

Langabeen % 56,3k (135.549 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken urtean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 8.227 langabetu gehiago erregistratu dira. Talde horretan % 6,5 hazi da langabezia azken urtean.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 9,9 dira. Talde horretan % 12,1 hazi da langabezia azken urtean, gehien hazi den taldea izanik.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 46.503 dira, hau da, langabeen % 19,3. Talde hau 2020an zehar % 7,0 hazi da.

Azkenik, langabeen % 14,5ek (35.051 lagun), egin ditu unibertsitateko ikasketak. Ikasketa maila hau dutenen artean % 2,9 hazi da langabetu kopurua, gutxien hazi den taldea izan delarik.

### • JATORRIA

Langabeen % 16,3 (39.155 lagun), atzerritarrak dira. 2019arekin alderatuta, atzerritar langabetu kopurua % 8,5 hazi da, eta bertakoak, aldiz, % 6,2.

Langabe atzerritarren % 31,7a Afrika iparraldekoak dira, % 26,9a Latinoamerikatik datoz, % 21,0a Europako Esparru Ekonomikotik, % 12,7a Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 6,1a, azkenik, Asiatik.

## 2020an erregistratutako langabezia

### Lan-eskatzaile langabeak 2020an

	2020	2019	Saldoa	Bil %
<b>SEXUA:</b>				
GIZONEZKOAK	112.727	102.733	9.994	9.7%
EMAKUMEZKOAK	128.185	123.357	4.828	3.9%
<b>25 URTEZ AZPIKOAK:</b>				
GUZTIRA	28.387	21.834	6.553	30.0%
GIZONEZKOAK	15.027	11.638	3.389	29.1%
EMAKUMEZKOAK	13.360	10.196	3.164	31.0%
<b>25-44 URTE:</b>				
GUZTIRA	114.942	107.168	7.774	7.3%
GIZONEZKOAK	53.014	47.734	5.28	11.1%
EMAKUMEZKOAK	61.928	59.434	2.494	4.2%
<b>45 URTEZ GORAKOAK:</b>				
GUZTIRA	97.583	97.088	495	0.5%
GIZONEZKOAK	44.686	43.361	1325	3.1%
EMAKUMEZKOAK	52.897	53.727	-830	-1.5%
<b>SEKTOREA:</b>				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	4.496	4.470	26	0.6%
INDUSTRIA	15.125	15.109	16	0.1%
ERAIKUNTZA	29.158	26.723	2.435	9.1%
ZERBITZUAK	165.531	155.098	10.433	6.7%
AURREKO ENPLEGURIK GABE	26.602	24.690	1.912	7.7%
<b>LURRALDE HISTORIKOA:</b>				
ARABA	41.926	37.271	4.655	12.5%
BIZKAIA	67.385	62.989	4.396	7.0%
GIPUZKOA	131.599	125.830	5.769	4.6%
EAE	240.912	226.090	14.822	6.6%